


Bilboko Ingeniaritza Eskola

Euskararen erabilera sustatzeko diru laguntzen deialdia, 2022. Urtea

Bilboko Ingeniaritza Eskolan euskararen presentzia bermatzeko eta erabilera sustatzeko konpromisoa daukagu. Horren harira, bat egiten dugu Euskararen Eguna edo Euskaraldia erako ekimenekin eta halakoez baliatuz, erakutsi egin gura dugu Ingeniaritza Eskolan ere euskara Hizkuntza bizia dela eta harremanetarako erabiltzen dela.

Aurtengo Euskaraldian ariguneetarako ikur identifikagarriak eta banderatoxak atera dituzte eta iritzi genion egokia zela horretarako batzuk eskuratzea, Euskaraldiaren sasoia girotzeko eta ariguneak identifikatzeko. Ikurrak eta banderatoxak erosteko, Euskararen erabilera sustatzeko diru laguntzen deialdira jo genuen.

Eraitza positiboa izan da. Hainbeste banderatoxo ipini dira Bilboko Ingeniaritza Eskolaren I, II eta Portugaleteko eraikinetako informazio-oholetan eta korridoreetan (50 guztira), eta ikur identifikagarriak eratutako ariguneetan (Idazkaritza eta lau atezaintza) jarri dira. Hona hemen hori erakusteko argazki batzuk:



Euskaraldiaren ekimenak zenbat pertsonengan izan duen eragina esateko, bereizi egingo ditugu Idazkaritza bera eta atezaintzak, bietan helburu berdinak bilatu badira ere: batetik, bertako langileen artean euskararen erabilera areagotzea zen asmoa eta bestetik, ikur identifikagarriak ipinita, zerbitzu horietara jotzen duen ikasleari, irakasleari, herritarrari edo postariari eskaria edo zerbitzua euskaraz egiteko aukera duela jakinarazi nahi zitzaien.

- Idazkaritza: Euskaraldiaren ekimenak eragina izan du batez ere jende-aurreko arreta ematen duten langileengan. Guztira sei bat langile izan dira ekimen horretan zuzenean aritu direnak.
- Atezaintzak: Bilboko Ingeniaritza Eskolan hiru eraikin ditugu: Bilbon bertan I eta II eraikinetan eta beste bat Portugaleten. Guztira sei atezaintza daude eta horietarako lautan eratu dira ariguneak: I eraikinean bat, beste bi II eraikinean, sarrera bakoitzeko bat, eta beste bat Portugaleteko sarreran, azken hori arratsaldez bakarrik izan arren arigunea. Guztira 12 bat langile aritu dira atezaintzetako ariguneetan.

Orokorrean, Euskaraldiaren sasoian euskara gehiago erabili da eman den jende-aurreko arretagatik, baina bai eta euron artean ere arean gehitxoago aritu direlako euskaraz.

Gure ustez, euskararen erabilera sustatzeko ekimenak ondo bete du bere helburua eta sano lagungarria izan dira deialdiaren laguntzaz erositako banderatzokak eta ikur identifikagarriak. Beraz, eskerrik asko zuen laguntzagatik.

***Jokin Gorozika Bidaurratzaga
BIEren Euskara arduraduna***

Ekimenaren izenburua: Eukaraldirako banderatzokak eta euskarriak

Ekimenaren helburua: Bilboko Ingeniaritza Eskolak konpromisoa izan du Euskaraldiarekin aurreko deialdiekin, eta aurten ere bat egiten du Euskaraldiaren asmoarekin eta helburuekin. Aurreko ekimenaren moduan, aurten ere 5 ARIGUNE eratu dira BIEn eta eurok non dauden erakusteko **euskarri identifikarriak** behar ditugu.

Euskaraldiaren ekimena deigarria egiteko eta Eskolako pertsonala Euskaraldian parte hartzera bultzatzeko, egoki deritzagu **banderatzokak** jartzeari BIEn edifizioetako zenbait lekutan.

Gure ustez, eskaera honek bete egiten ditu Euskararen Erabilera Sustatzeko Diru Laguntzen deialdian ezarritako helburuak.